

KF-03.02
PROIEKTUEN DISEINU TXOSTENA

Kodea: PR-04.04

Edizioa: 1

Proiektuaren IZENA:

Kalitate parametroak eta ebaluaketa Ulibarri programan

EDUKIAK:

1. Proiektuaren kokapena
2. Proiektuaren Helburuak
3. Enfokea eta metodologia
4. Proiektuaren Despliegua: Jarduerak eta kronograma
5. Aurrikusitako emaitzak edo produktuak
6. Bibliografia

Egilea: J. Inazio Marko Juanikorena

Data: 04-12-28

1. Proiektuaren Kokapena

Proiektu hau, ULIBARRI programaren kudeaketaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren baitako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren Euskara Zerbitzuko arduradunen inizatibaz sortu da eta ondoren Soziolinguistika Klusterrarekin adostu, Klusterrak Ulibarri programan duen Aholku Elkarte izaera dela medio.

Ulibarri egitasmoaren arduradunek badituzte hainbat kezka programaren inplementazioari dagokionean eta zer ikusia dutenak egitasmoarekiko inplikazioarekin, egitasmoaren instituzionalizazioarekin, komunikazioarekin, kalitate sistemen erabilerarekin eta, oro har, programaren funtzionamendu orokorrarekin. Kezka horiek, ondoko galdera hauetan esplizitatu zaizkigu:

- Nola egin daiteke Ulibarri egitasmoarekiko inplikazioa (hizkuntzaren kezka) klaustro osora zabaltzeko? Normalkuntzaren gaia soilik teknikariarena izan ez dadin?
- Nola lantzen da inplikazioa beste gestio planetan? Bereziki gestioaren hobekuntzarako kalitate planetan? Zer lortzen da?
- Zer erantzun dakieke honako hau galdetzen duten zentroei: gu kalitatean ari gara eta non kokatu behar dugu hizkuntzarena?
- Bere orokorrean hartuta, nola funtzionatzen ari dira Ulibarri programaren prozesuak, komunikazioak eta egitura?

Gaur egun, hainbat eskola kalitatearen kontutan sartuta daude, baina gai horiek bere bide propioa egin dute, ez hizkuntzaren normalkuntza planekin lotuta. Eta kezka da ez ote diren bi gaiak elkarrekin behar bezala uztartu.

Bestalde, kalitate programetan funtsezkoa bihurtzen da partaideen partehartzea, inplikazioa eta elkarren arteko komunikazioa. Ulibarrin badago gaur egun sare-egitura bat, baina hobetu beharrekoa, komunikazioari dagokionean eta beste hainbat aspektutan.

Beraz, proiektu honen bitartez, kalitate programen eta normalkuntza programen ildoak uztartzen hasteko lehen urratsak eman nahi dira: ikastetxe bateko kalitate planean normalkuntzaren integratuta egon dadin eta, aldi berean, normalkuntza plangintzetan kalitate parametroak eta irizpideak erabil daitezen.

Planteatutakoaren arabera, ikerketaren emaitza gisa honako hau lortu nahi da: kalitatea eta normalkuntza lotuko dituen oinarritzko material teorikoa prestatzea eta adibide gisa eredu praktiko batzuk edukitzea.

2. Proiektuaren Helburuak

Proiektu honen 2005. urterako helburuak dira:


- Ulibarri egitasmoaren ebaluaketarako lehen eredu bat zehaztu eta ebaluaketa burutu.
- Kalitate eta hobekuntza prozesutan murgilduta dauden ikastetxeek zein mailataraino uztartzen dituzten kalitatearen kudeaketa prozesuak Ulibarri programako jarduera eta garapenarekin aztertu.
- Ulibarriren ebaluaketan identifikatutako hobetzeko atalei edo ahuleziei kalitate programetan zein soluziobide ematen dizkieten kontrastea egin.
- Teknikarien jardunaren laguntzarako oinarrizko lehen materiala edo orientabideak prestatu.
- Ikerketa-ziklo berri baterako oinarriak prestatu.

3. Proiektuaren Enfokea eta Metodologia

Proiektu hau, proiektu zabalago baten ziklo edo atal gisa planteatzen dugu. Landu nahi den tematikaren konplexutasunak urte batzuetarako ikerbidea zabaltzea eskatzen du, gaia aztertu, praktika berriak diseinatu, horiek frogatu, horien emaitzak jaso eta ebaluatu, eta, ondorioak orokortu ahal izateko.


Planteatu zaigun ikerketa lan enpirikoa da, gizartean indarrean dagoen errealitate baten gainean egingo dena, dagoeneko martxan dagoen eskuhartzea erreferentziatzat hartuko duena eta helburu praktikoak izango dituena. Hori horrela, ikerketaren erreferente teoriko-metodologiko gisa proposatzen dugun eredua «Ekintza-Ikerkuntza»rena da; Kemmis eta McTaggart-ek (1988) ikerkuntza-ekintzari ematen dioten zentzuan, eraldaketa soziala sustatu nahi duen praktikari buruzko ikerkuntza den neurrian, eredu horren parametroetan koka daitekeen lana baita.

Paradigma honen bitartez (Jauregi, 1994), ikerkuntzak ekinbide praktikoari norabidea argituko dio eta praktikak ezagutza handiagotzen lagunduko du, lau faseko mugimendu espiralak osatzen dituzten zikloen bitartez: ekintzaren plangintza, ekintza, behaketa eta hausnarketa.



Ikerkuntza-Ekintza, beraz, espiral moduko prozesua da, aldeztu aurretik planifikatutako praktika bati buruzko behaketaren hausnarketak errealitatea eraldatzeko prozesuei buruzko oinarri teorikoak eraikitze eta hornitzeko ahamena emango diguna; gero, oinarri teoriko horiek aplikatuz, eraldaketa prozesuak eragiteko metodologi berriak, hobeak eta efikazagoak egikaritu ahal izango dugularik.


Bestalde, eta zentzu horretan, Ikerkuntza-Ekintzaren planteamendu ziklikoak bat egiten du erabat Kalitatearen arloan oinarritzeko den etengabeko hobekuntzaren kontzeptuarekin, eta berau sistematizatzen duen PDCA zikloarekin.



Modu honetan, hezkuntza alorreko ikerkuntza eredu baten eta kalitatearen gestioaren alorreko hobekuntzarako beste praktika-eredu baten arteko lotura logiko-kontzeptuala argibide izango dugu burutu nahi dugun ikerlanerako

Aurtengorako planteatzen dugun Proiektu-zikloaren funtsa, aurrelana egitea eta ikerketa osoaren oinarriak eta ildoak finkatzea izango da. Hori egin ostean, hurrengo urteetan, kalitatea eta normalkuntza uztartze bidean Ekintza-ikerkuntza metodologia erabiliaz lan egingo duten esperientziak antolatu eta bideratu ahal izango dira, ziklo berriak osatuahala ezagutzaren espiralean sakontzeko bide izango direnak.

4. Proiektuaren Despliegia: jarduerak, ardurak eta kronograma



5. Aurrikusitako emaitzak edo produktuak

2005eko Proiektu-ziklo honen emaitza gisa aurrikus daitezkeen produktuak dira:

- Proiektuaren memoria.
- Artikuluak: egitasmo baten ebaluaketarako ereduari buruzkoa, Kalitatea eta normalkuntza uztartzearen egoerari buruzkoa.
- Orientabide koadernoak, teknikariei zuzendutakoak: non eta nola txertatu normalkuntza programak kalitatearen kudeaketarako egitasmoetan, lehen hurbilpena.
- Sakontze Foroa, hezkuntza alorreko eta beste arloetako teknikariek.

6. Bibliografia

- EUSKALIT (2002): *X Curso en gestion de calida y excelencia*. Zamudio: Euskalit.
- GONZALEZ, R.; LATORRE, A. (1987). *La Investigación-Acción*. In, GARIN, J; ANTUNEZ, S; PEREZ, A (Ed.): **Temas actuales en educación. Panorámica y perspectivas**. Barcelona:PPU.
- JAUREGI, P. (1998): *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategiak*. Bilbo: UPV-EHUko argitalpen zerbitzua, Doktorego Tesiak Saila.
- KEMMIS, S.; MCTAGGART, R. (1988). *Cómo plainificar la investigación-acción*. Barcelona: Laertes.
- MUGIKA, I. E.b. (1997): *Kalitatea eta etengabeko hobekuntza*. Heziketa zikloak. Usurbil: Elhuyar-Taldeka.